txirrindulari-lasterketak

“iruditan”

BERGARA 2010. AROZTEGI ARETOA

Argazki erakusketa • Exposición de fotografía

Azaroaren 26tik abenduaren 12ra • Del 26 de noviembre al 12 de diciembre

txirrindulari-lasterketak

"iruditan"

BERGARAKO UDAL ARTXIBOAK
ANTOLATUTAKO ERAKUSKETA

Aroztegi Aretoa. Bergara
2010eko azaroaren 26tik abenduaren 12ra del 26 de noviembre al 12 de diciembre de 2010

AROZTEGI ARETOA

BERGARAKO UDALA

ESKERTZAK AGRADECIMIENTOS

- Bilboko Txirrindulari Elkartea *Sociedad Ciclista Bilbaína*
- Eibarko Industriaren Museoa *Museo de la Industria de Eibar*
- Filmoteca Española
- Lorentzo Laskurain
- Jesus Aranzabal
- Miguel Bengoa
- Gurutz Arrieta
- Pello Garitano
- Iñaki Sagastume

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN
Txirrindulari-lasterketak iruditan

ANTOLATZAILEA ORGANIZADOR
Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

INPRIMAKETA-EDIZIOA IMPRESIÓN-EDICIÓN
K3 Inprimategia

ARGITALPENA EDICIÓN
Bergarako Udal Artxiboa Archivo Municipal de Bergara

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL
SS-1453-2010

AURKEZPENA

Orain dela urte batzuk Isabel Vidartek, Toribio Jauregiren argazkiak erabilita, pelotari buruzko erakusketa antolatu zuen Aroztegin. Gaurkoan, udal artxiboak —Toribio Jauregiren argazki funtsaren dohaintza jaso ondoren— beste kirol bat aukeratu du erakusketa honetarako: txirrindularitza.

Erakusketa antolatzeko, txirrindulari-lasterketei buruz informazio bila hasi ginen. Udaleko aktetan azaltzen denez, 1925ean bi lasterketatarako eman zen diru-laguntza; bata Unión Deportiva Eibarresak antolatutakoa, eta bestea Tolosako Peña Erbiyak. Lasterketak gure herritik pasatzeko baimena behar zuten eta bidenabar dirulaguntza eskatzen zuten. Dauzkagun datuen arabera, gurean antolatutako lehenengo lasterketa 1932an izan zen; Aroztegin orduko trofeoa ikusi ahal izango dugu. 1935ean Or-Konpon taldeak Pentekostes saria antolatu zuen, gaur egun ere egiten den saria, alegia. Dokumentuetan azaltzen denez, zaletasun gero eta handiagoa zela eta auzo gehienetako jaietan txirrindulari-lasterketak antolatzen hasi ziren: San Lorentzon, Altos Hornosen eta San Antonion, batik bat.

Gure herrian gertatu zen bezala, beste herrietan ere gauza bera pasatu zen; lasterketa ugari zeuden afizionatuentzat. Aurrerago, 1952an, Bergarako Kirol Elkartea martxan jarri zenean, txirrindularitza-saila ere bazuen. Hurrengo urtean txirrindulari-taldea osatu eta 1957ra arte iraun zuen. Geroago, 1961. urtean, Bergarako Txirrindulari Elkartea sortu zen. Gaur egun Lokatza txirrindulari-elkartea daukagu.

Argazkien bitartez makina bat gauza antzematen dira. Bizikletak berak izan duen aldaketa, txirrindularien janzkeraren bilakaera, publizitatea egiteko modua, besteak beste. Eta lehen eta orain, lanerako eta lasterketak antolatzeko prest dagoen elkarte baten beharra. Erakusketa hau pertsona horiei guztiei gure esker ona azaltzeko modu bat da.

KREDITUAK

Erakusketan agertzen diren argazki guztien egilea **Toribio Jauregi** da. Udal artxiboan aukeraketa bat egin dugu; izan ere, txirrindularitzarekin zerikusia duten argazkiak 900etik gora dira. Zintzilik 46 argazki jarri ditugu. Ziklo-krosekoak direnak, berriz, DVD batez ikusgai egongo dira.

- 1932an Bergaran egindako txirrindularitza-lasterketaren trofeoa.
  Jabea: Bilboko Txirrindulari Elkartea / Sociedad Ciclista Bilbaína
- 1933an Bergaran egindako txirrindularitza-lasterketaren trofeoa.
  Jabea: Bilboko Txirrindulari Elkartea / Sociedad Ciclista Bilbaína
- ECHASA karrerako bizikleta
  Eibarko Industriaren Museoa (Eibarko Txirrindulari Elkarteak emandakoa).
- Bizikletaren kate-estalkia
  Eibarko Industriaren Museoa (Juan Luis Atxak utzitakoa)
- Bizikletarentzako puzgailua
  Eibarko Industriaren Museoa (Juan Luis Atxak utzitakoa)
- Katea
  Eibarko Industriaren Museoa (Iris Chains-ek emandakoa)
- Oliontzia eta erreminta anitzeko kutxa: giltzak, desmuntatzeko tresna, tenkatzaile…(4 giltza txiki eta 7 handi)
  Eibarko Industriaren Museoa
- 1963. urteko Espainako Ziklo-kros txapelketa
  Filmoteca Española, NO-DO, 1050 A
- Bergarari buruzko 1967ko erreportajea
  Filmoteca Española, 1191
- Simon Arrietak 1955eko Pentekoste jaietako eskuzko programarako egindako txirrindularien marrazkia.
  Bergarako Udal artxiboa, azpifuntsa administratiboa, C/2986-10
- Espainiako errepide-txirrindularitzako 55. txapelketaren ibilbidea
  Bergarako Udal Artxiboa, artxiboko bilduma. Lorentzo Laskurainen dohaintza
- Bixente Jauregik egindako txirrindularitzari buruzko collage bat

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

- EUSKAL txirrindularitzaren 100 urte = 100 años de ciclismo vasco. Bilbo: Euskal Museoa, 1999
- 50 aniversario Club Deportivo Bergara = Bergarako K. E. 50 urtemuga. [Bergara, 2002]
- SEBASTIÁN, Juanjo; AZPIRI, Begoña. Txirrindularitza 1910-1993. Eibar.
- "La Voz de España" egunkaria, Koldo Mitxelena Kulturuneko hemeroteka digitalean.
- Auñamendi Entziklopedia

1947, Oñati.
Lasterketaren irteera unibertsitatearen ibilbidean.

Gerra aurretik.
Lasterketaren irteera San Martin plazan.

1961eko urriak 8, Antzuola.
Uzarragako lehenengo igoera. Irteera plazan.
Irabazlea Juan Elorza izan zen.



1962ko ekainak 17, San Antonio.
Gipuzkoako Errepideko Txirrindularitza Txapelketaren irteera (afizionatuak).
Irabazlea Jesus Aranzabal izan zen. Nere Agirregabiria eta Joselu Arana umeak, baserritar jantzita, eman zioten lore-sorta.

1960 inguru, Santa Marina eguna.
Lasterketaren irteera Zubietan.



1960 inguru, Santa Marina eguna.
Lasterketaren irteera Zubietan.

1959ko maiatzak 18.
"Pentekostes" saria. Irteera San Martin Agirre plazan.
Irabazlea Anton Barrutia izan zen. Lasterkari independientea saria J.L. Talamillok irabazi zuen.

1961eko irailak 16.
"San Martin" saria. Irteera Bidekurutzetatik gora.
Gazte-mailako lasterketa honetan irabazlea Eibarko Jose M. Agote izan zen.



1957ko ekainak 16, San Antonio.
"San Antonio" saria.
Irabazlea Gamma taldeko Anton Barrutia izan zen.

1961eko martxoak 19, Elgeta.
"Algodonera de San Antonio" I. saria. Jesus Aranzabal gurpila konpontzen.
Bera izan zen irabazlea; Espoloiko sprint-ean I. Askasibarri irabazi zion.

1956eko abuztuak 5.
Estatu mailako Errepideko Txirrindularitza Txapelketa. Lasterketaren karabana trenbide-pasagune batean zain.
Irabazlea Antonio Ferraz izan zen. Porriñok La Voz de España egunkariko kronikan zioenez, karrera honetan kotxe gehiegi egon ziren, gehienak behar ez ziren prentsa kotxeak, barruan benetako berriemailerik gabe.



1955eko ekainak 19.
"San Martin" saria. Txirrindulariak Martokora igotzen.
Lasterketaren irabazlea Gamma taldeko Jesus Loroño izan zen. Martoko gainak 100 pesetetako prima zeukan; Facundo Zabaletak eskuratu zuen.

1960ko abuztuan, Madura kalea.
"San Lorentzo" saria. Afizionatuentzat.

1963eko ekainak 16.
"San Antonio" saria. Kas taldeko Carlos Etxeberria gurpila aldatzen.
Irabazlea Ega taldeko Antonio Blanco izan zen.

1959ko ekainak 14.
"San Antonio" saria. Txirrindularia mendatea igotzen.
52 txirrindularik hartu zuten parte. Irabazlea Eya taldeko Carlos Etxeberria izan zen.

1961eko maiatzak 22.
"Pentekostes" saria. Txirrindularia anbulantziara sartzen.
Lasterketaren lehenengo etapa honetako irabazlea Nicolas Iparragirre izan zen.



1961eko martxoak 19.
"Algodonera de San Antonio" I. saria. Irabazlea, Jesus Aranzabal, helmugan jenteak lagunduta.
40 lasterkarik hartu zuten parte. Lasterketa sprint-ean erabaki zen; Aranzabalek Angel Ascasibarri aurrea hartu zion.

1947, Oñati.
Lasterketaren helmuga: epaileen mahaia, ikusleak, eta berriemailea idazten.

1962eko ekainak 17, Espoloia.
Gipuzkoako errepideko txirrindularitza txapelketa (afizionatuentzat). Jesus Aranzabal helmugara heltzen.
Bera izan zen irabazlea, azken kilometroetan Luis Errazkin gainditu eta gero.

1961eko urriak 8, Uzarraga.
Uzarragako lehenengo igoera. Txomin Perurena helmugara heltzen.
Irabazlea Juan Elorza izan zen, Perurena 4. heldu zen.

1958ko ekainak 16, Espoloia.
Hego Euskal Herriko Mendiko Txirrindularitza Txapelketa. Bi txirrindulari helmugara heltzen.
La Voz de España egunkariko Santos Alustiza berriemaileak zioenez, lasterketa honetan gurpil asko zulatu ziren errepidearen egoera txarra zela eta.

1963ko martxoak 19, Espoloia.
"Algodonera de San Antonio" III. saria. Txomin Perurena helmugara heltzen.
Txomin Perurena irabazlearen ondoren A. Inseras eta Joaquin Galera sartu ziren.

1963ko ekainak 16, Espoloia.
San Antonio saria. Txirrindulariak lasterketaren helmugara sartzen.
Antonio Blanco-k sprint-ean irabazi zien Jose Manuel Lasa, Sebastián Elorza, Candelas Dominguez, Manuel Martorell, Eusebio Santisteban eta Hernando Mateo txirrindulariei.

1963ko ekainak 3, Espoloia.
"Pentekostes" saria. Txirrindularia helmugara sartzen txirrindua eskuan daramala.
Lasterketaren bigarren etaparen irabazlea Sebastian Elorza izan zen.

1963ko maiatzak 1, Labegaraieta.
Txirrindulariak helmugara heltzen Ibarra kalean.
Bigarren mailako afizionatuen lasterketa honetako irabazlea Graficolor taldeko Juan Elorza izan zen.

1957ko ekainak 10, Espoloia.
"Pentekostes" saria. Fausto Iza txirrindularia Espoloiko helmugara heltzen.
22 txirrindularik hartu zuten parte. J.L. Talamillok gurpila bi aldiz zulatu eta kataia apurtu ondoren laga egin zuen lasterketa.

1958ko abuztuak 10, San Lorentzo.
"San Lorentzo" saria. Txirrindularia helmugara heltzen.

1962ko ekainak 17, Espoloia.
Gipuzkoako Errepideko Txirrindularitza Txapelketa (afizionatuak). Jesus Aranzabal kopa jasotzen.
Jose Manuel Lasa zen faboritoa, baina 22. km-an gaixorik erretiratu zen.

1961eko maiatzak 23, Espoloia.
"Pentekostes" saria. Nicolas Iparragirre eta Gabika, sariak jasotzeko zain.
Pentekostes sariak bi etapa izaten zituen. Nicolas Iparragirre1. etapa eta lasterketaren irabazlea izan zen. 2. etapa Gabikak irabazi zuen.

1958ko maiatzak 26, Espoloia.
"Pentekostes" saria. Carmelo Morales "Jabali" saria jasotzen.
31 lasterkari irten ziren, baina 20k bakarrik bukatu zuten. L. Otaño Udanan jausi eta anbulatzian eraman zuten.

1962ko martxoak 19, Espoloia.
"Algodonera de San Antonio" II. saria Valentin Uriona saria jasotzen.
Lasterketa honetan 28 txirrindularik (afizionatu eta independienteak) hartu zuten parte.

1956ko abuztuak 5, Zapaterikua.
Espainiako Errepideko Txirrindularitza Txapelketa. Antonio Ferraz, irabazlea, ohorezko ibilbidea egiten.
Lasterketan 38 txirrindularik hartu zuten parte. Araudiak zioenez, 238 km-ko ibilbidean zehar gurpila zulatu ezkero ezin zen aldatu, norberak konpondu behar zuen.

1965eko abuztua, Elgeta.
Ignacio Askasibar bere herrian irabazlearen lore-sortarekin.

1958ko maiatzak 26, Espoloia.
"Pentekostes" saria. Carmelo Morales "Jabali" ohorezko ibilbidea egiten lore-sorta eta koparekin.
Irabazlea Morales izan zen; horren atzetik Aspuru, Zabaleta eta San Emeterio sartu ziren helmugara.

1957ko ekainak 10, Espoloia.
"Pentekostes" saria. Irabazlea lore-sorta eta koparekin.
Ordiziako Boxing Club taldeko Fausto Iza izan zen irabazlea; atzetik, Emilio Cruz eta J. Manuel Menendez.

1957ko abuztuak 11, San Lorentzo.
"San Lorentzo" saria. C.D. Vergara taldeko txirrindularia kopa eta lore-sortarekin.

1962ko irailak 23, Espoloia.
"San Martin" II. saria. Txomin Perurena, Caobania Touring taldekoa.
Irabazlea Perurena eta J.M. Lasa izan ziren lasterketa honen protagonistak. Saria sprint-ean erabaki zen.

1960ko ekainak 16, Espoloia.
"San Antonio" saria. Lasterketaren karabana, Goardia zibilak eta publizitateko kamionetak.
Kube taldeko Jose Antonio Momeñe txirrindularia izan zen irabazle.
Korpuseko prosezioa zela eta lasterketa desbideratu egin behar izan zuten.



1960ko urriak 30, Donostia.
Jesus Aranzabal 100 km-ko errekorra gainditu zuen erloju kontrako lasterketan. Periko Matxain entrenatzailea txirrindularia atenditzen. *Aranzabalek 2 ordu, 31 minutu, eta 23 segundu behar izan zituen Donostia-Ormaiztegi-Donostia ibilbidea burutzeko. 10 minutu eta 41 segunduz jaitsi zuen Luis Otañok zeukan errekorra.*



1961eko urriak 8, Uzarraga.
Uzarragako I. igoera. Txirrindulari taldea iturriaren aurrean.
Ignacio Askasibar, Txomin Perurena eta Jesus Aranzabal, besteak beste.

1961eko maiatzak 22, Espoloia.
"Pentekostes" saria. Edari baten promozio-postuan edariak banatzen.
Pentekostes sariak bi etapa izaten zituen, astelehenean eta asteartean.

1958ko ekainak 16, Espoloia.
Hego Euskal Herriko Mendiko Txirrindularitza Txapelketa. Pastillas Olé taldeko Fernando Galarraga txirrindularia bere bizikletarekin. *Egunkariek ziotenez, Carmelo Ormaechea Elorregin errekara jausi eta bertan zegoen arrantzale bati sekulako sustoa eman zion.*

1958ko abuztuak 10, Zapaterikua.
"San Lorentzo" saria. Koadrila helmugan txirrinduekin.
Atzealdean ikusten diren etxeak: ezkerreko 1.a Markiegitarrena; 2.a "Kanpos"; eskuman Txurtxil lantegia eraikitzeko lanak.



1957ko maiatzak 18, La Parra taberna.
Jesus Loroñori, Espainiako buelta irabazi ondoren, San Antonion egindako omenaldia.
Labadora bat oparitu zioten, eta auzoko neskek seme jaioberriarentzako "kanastilla" bat eman zioten.
Antzuolako komisio batek larruzko maletina entregatu zion.

txirrindulari-lasterketak

"iruditan"

Ordutegia:

asteartetik ostiralera	18:00 - 20:30
larunbatetan	12:00 - 14:00
	18:00 - 20:30
igandeetan	12:00 - 14:00

AROZTEGI ARETOA

BERGARAKO UDALA

Barrenkale 7, 20570 BERGARA • Tel.: 943 77 91 59 • e - mail: kultura@bergara.net